

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Turismo eta Merkataritza Zuzendaritza Nagusiak "Nafarroako Erresuma" marka turistikoa eguneratu du

Irudi berriak irakurgarritasun egokia ziurtatzen du, formatua gorabehera.

Viernes, 25 de octubre de 2013

Turismo eta Merkataritza Zuzendaritza Nagusiak "Nafarroako Erresuma" marka turistikoa eguneratu du, irakurgarritasun egokia ziurtatzeko, erabiltzen den formatua edozein dela ere.

Orekatuagoa den marka berrian, sinboloa ez da hain nabarmena tipografiaren ondoan, neurri handiagoa du;

beraz, konpentsatuta geratzen da guztia. Ezaugarri argi, irakurterraz eta dotoreko "Nafarroa" hitza, Berkeley letra-tipoduna, garrantzitsuagoa eta nabariagoa da.



Halaber, sinbolo biribila ere txikitu egin da. Nafarroa eta bere eskaintza turistikoa identifikatu eta bereizten dituzten balioak biltzen ditu kontzeptu grafiko xume batean. Alde batetik, "Nafarroako Erresuma" kontzeptua ekartzen du gogora eta, beste alde batetik, lau urtaroen eta Nafarroako lau inguruen barietate kromatikoa agertzen du.

Sinboloa forma biribil eta atseginek eratzen dute eta, tonu argietan oinarrituta, Foru Komunitatean eskaintzen diren esperientzia turistikoen aberastasuna iradokitzen du.

Marka turistikoa berraztertzeaz gain, markaren eskuliburua ere berrikusi da osatzen duten ikusizko elementuak (logotipoa, koloreak, tipografia eta estilo fotografikoa) mezu guztietan behar bezala eta koherentziari eutsiz aplikatzen direla ziurtatzeko.

Publizitate-elementuetarako, orain, Gotham Rounded tipografia erabiltzen da, behar bezala ikusten dela ziurtatzeko, baita letra-tamaina oso txikia denean ere, hala, urrunetik ezagutu ahal izango da.